

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

**DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTE**ASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak 534.000 euroko laguntza baimendu du UAGNren "In agro salute" proiekturako

Proiektuaren barruan, Iruñean nekazaritza interpretatzeko zentroa eta nekazaritza-jarduera hedatzeko kanpainak sartzen dira

Lunes, 11 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, gaurko saioan, 533.893 euroko gastua baimendu du 2011-2013 aldirako, *In agro salute* proiektua diruz laguntzeko. Proiektua Fundagro Fundazioak sustatzen du, Unión de Agricultores y Ganaderos de Navarra-UAGNren mendekoa denak.

"In agro salute" Espainia, Frantzia eta Andorraren 2007-2013 Mugaz gaindiko Europako Lankidetzaren Programaren barruan sartzen den proiektua da. Proiektua Fundagrok, EAEko Itsasmendikoi Landa Garapeneko Zentroak eta Akitaniako Pirinio Atlantikoen Nekazaritza Ganberak (Frantzia) gauzatuko dute, landa-ingurua eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak herritarrei ezagutarazteko eta horiei zabalkundea emateko.

Proiektuak 5,2 milioi euroko kostua da. 3,38 milioi Europako funtsekin finantzatzen dira, milioi bat hiru administrazioen kargura (proiektuan parte hartzen duten Espainiako bi autonomia-erkidegoak eta Frantziako departamentua), eta 750.000 euro proiektua sustatzen duten entitateen funtsen bidez.

Proiektuak 5,2 milioi euroko kostua du, eta 3,56 milioi Nafarroari dagozkio. Kopuru horretatik 2,3 milioi Europako funtsekin ordaintzen dira, eta milioi bat Foru Administrazioak ematen du. 178.000 euro Fundagoren berezko funtsei dagokie.

Proiektuaren barruan, nekazaritza interpretatzeko zentroa kokatuko da Iruñean, Vuelta de Aranzadi kalean. Aurreikuspenen arabera, zentroak 2012ko hirugarren hiruhilekoan irekiko ditu ateak. Zentroa Udalak 75 urterako lagatuko lursail batean kokatuko da, Gurbindo Etxea izeneko eraikinean (kale horretako 6. eta 8. zenbakiak). Eraikina eginkizun berrirako zaharberrituko da, Alday-Jover arkitektoen proiektu batekin. Guztira, 1.200 metro koadro izango dira prestakuntza-jardueretarako, nekazaritza eta abeltzaintza arloko enplegu-tailerretarako eta nekazaritza-produktuen eta -jardueren sustapen-ekintzetarako.

Nafarroako Gobernuak gaur onetsitako 533.893 euroko laguntza honela banatzen da: interpretazio-zentrorako, 439.894 euro, eta nekazaritza-komunikazioko eta -sustapeneko jardueretarako, 94.000 euro.